




BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO



**BILBOKO HEZKUNTZA
FAKULTATEKO
ELANKIDETZA PLANA**

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Elankidetza Plana

Aurkibidea

1.	Testuingurua	2
2.	Helburuak	3
	Helburu orokorra	3
	Helburu espezifikoak	3
3.	Programaren modalitateak	3
4.	Erakunde Laguntzaileen Sarea	4
5.	Inplikaturako eragileen erantzukizunak	5
	UPV/EHuren Bilboko Hezkuntza Fakultatearenak	5
	Bilboko Hezkuntza Fakultateko Garapenerako Lankidetza Batzordea	6
	Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako Dekanordetza	6
	Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako Dekanordetza, Lankidetzako arduradunarekin elkarlanean	6
	Bilboko Hezkuntza Fakultateko Garapenerako Lankidetza Batzordearen koordinatzailea	6
	Erakunde laguntzaileak	6
	Programan parte hartzen duten ikasleak	7
6.	Ikasleek parte hartzeko prozedura	7
	Parte-hartzaileak hautatzea	7
	Plazak adjudikatzea	8
1.	eranskina: Baldintzak onartzeko konpromisoa	9

1. Testuingurua

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) [Garapenerako Lankidetza Bulegoa](#) dago, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari atxikia eta Garapenerako Unibertsitate Lankidetza bultzatzeko sortua. Zerbitzu horri esker, UPV/EHUko ikasleek praktikak, gradu amaierako lanak (GRAL) edo master amaierako lanak (MAL) hainbat herrialdetan egin ditzakete, [GAZTENPATIA](#) programaren barruko garapenerako lankidetzako proiektuetan.

Garapenerako lankidetza, hain justu, UPV/EHUren gizarte konpromisoaren funtsezko ezaugarria da, eta halaxe dago jasota bere Estatutuetan. Bertan xedatuta dagoenaren arabera, Unibertsitatearen helburuetako bat baita “nazioarteko trukea eta lankidetza indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean” (17/2011 Dekretua, I. titulua, 4. artikulua).

Unibertsitatearen egiteko hori gure fakultatearen parte dela eta Hezkuntzako graduetakoko ikasleak lankidetzarekin bereziki sentsibilizatuta egoten direla kontuan hartuta, plan hau landu da unibertsitate barneko lankidetza bultzatzeko. Horretarako, Garapenerako Lankidetza Bulegoari protagonismo handiagoa ematea proposatzen da, proiektu horietara plaza eta baliabide gehiago bideratuta; halaber, Bilboko Hezkuntza Fakultateko (BHF) irakasle eta ikasleei zuzendutako sentsibilizazioko ekintzak areagotzea ere proposatzen da.

Horrela, bada, BHFtik garapenerako lankidetzako proiektuen sare bat sor dadin bultzatu nahi da, Gizarte Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetakoko ikasleek, baita Fakultateari atxikitako masterretakoek (egun, Esku-hartzea adingabeekin, Psikodidaktika eta MUTAE dira) ere curriculumeko praktikak eta GRAL edo MALak arlo horretan egin ahal izan ditzaten. Ekimen horren bitartez, unibertsitateko prestakuntza askotarikoa, kritikoa eta konprometitua izatea lortu nahi da, enpatia eta elkartasunaren balioetan oinarrituta, etorkizuneko profesionalak gure gizartean sortzen diren erronkei aurre egiteko prestatzen laguntzeko.

Ildo horri jarraikiz, Fakultatetik, curriculumeko praktikak eta gradu edo master amaierako lanak prozesu baten barnean txertatu nahi ditugu planarekin, prozesu hori eskaintzen den gradu bakoitzera egokituta, beharrezkoak diren gaitasunak aintzat hartzen direla bermatuta eta eraldaketa sozialerako akuilu izanik. Horregatik, garrantzitsua da ildo berean lan egingo duen batzorde bat sortzea.

Horrela, BHFk Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) duen konpromisoari erantzuten diogu eta, bereziki, garapen bidezkoago eta jasangarriago baten aldeko hezkuntza eraldatzailea eta nazioarteko lankidetza sustatzen dituzten 4. helburuari (hezkuntza eta kalitatea), 10. helburuari (desberdintasunak murriztea) eta 17. helburuari (helburuak lortzeko aliantzak).

ELANKIDETZA Plana bat dator [Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearekin](#) eta legean aipatzen diren Parte-hartzearen, Erantzukidetasunaren, Koherentziaren eta Konpromisoen printzipioekin, eta, horretarako, egungo sare eta organismoetan (esaterako, [Euskal Fondoa](#) eta Euskadiko [GGKEen](#) koordinakundea) biltzen diren Hegoaldeko erakunde eta tokiko erakundeen laguntza du.

Leioa, 2025eko urria

2. Helburuak

Helburu orokorra

Unibertsitatean prestakuntza eraldatzailea bultzatzea, ikasleak garapenerako lankidetzaren nazioarteko sistemaren egungo bilakaerarekin lotuko dituen, giza eskubideetan, jasangarritasunean, ekitatean eta Iparraldeko eta Hegoaldeko eragileen arteko erantzukidetasunean oinarritutako esperientzia akademiko eta profesionalak sustatuta.

Helburu espezifikoak

- Ikasleen prestakuntza garapenerako lankidetzaren nazioarteko sistemaren egungo printzipioei atxikitzea, giza eskubideetan, jasangarritasunean, genero ekitatean eta justizia globalean oinarritutako ikuspegiak sustatuta.
- Fakultatearen eta Hegoaldeko eta Iparraldeko erakundeen arteko aliantzak finkatzea, erantzukidetasuneko eta elkarrekotasuneko irizpideei jarraikiz, eredu asistentzialistak gaindituta eta elkarrengandik ikasteko harreman horizontalak sustatuta.
- Unibertsitatearen prestakuntzako ibilbideetan lankidetzaren eraldatzailearekin lotutako gaitasunak txertatzea eta ebaluatzea, hala nola kulturartekotasun kritikoa, desberdintasun globalen azterketa eta tokiko komunitateekin batera irtenbideak batera diseinatzeko gaitasuna.
- Nazioarteko eta tokiko prestakuntza esperientziak sustatzea, laguntza tradizioaletik hasita lankidetzaren sistemak baterako garapenerako, berrikuntza sozialeko eta jasangarritasun komunitarioko eredu-erantzukizun izan duen bilakaeraren adierazgarri.
- Unibertsitateko kideak sentibilizatzeko eta inplikatzea ekosistema globalaren egungo erronken inguruan (migrazioak, larrialdi klimatikoak, desberdintasunak, digitalizazioa), eta errealtate horiek hausnarketa pedagogikoarekin eta ekintza profesionalarekin lotzea.
- Fakultateko prozesuetan eskaintza egonkor eta sendoa txertatzea Hezkuntzako gradu eta masterretan eta, bereziki, curriculumeko practicum prozesuetan, hezkuntza eskaintzaren kalitatea areagotuta.

3. Programaren modalitateak

ELANKIDETZA Planak [IKASKOOP](#) deialdiaren laguntza ekonomikoa jasotzen du, bi modalitateetan, eta Hezkuntza Fakultateetik aurreko biak biltzen dituen C modalitate bat aurreikusten da:

A modalitatea. Kanpoko Praktika Akademikoak (KPA) Garapenerako Lankidetzaren Hegoaldeko herrialdeetan. Horri dagokionez, Hegoaldeko herrialdeetan lan egiten duten eta gure lurraldean bazkide bat duten erakundeak identifikatu beharko dira, plan honen funtsezko jarduerak lantzeko bat den aldetik.

B modalitatea: Gradu Amaierako Lana (GRAL) eta Master Amaierako Lana (MAL) Hegoaldeko herrialdeetan. Lan horien helburua da UPV/EHUko gradu eta masterreko ikasleek ikasitakoak Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) eta lankidetzako erakundeek planteatutako arazoak konpontzeko eta/edo erronkak gainditzeko aplikatzea.

C modalitatea: BHFk lankidetzari eta practicumari lotutako gradu edo master amaierako lanak egitea ere bultzatu nahi du, bi prozesuak elkar elika daitezzen. Modalitate hori graduetako irakasgai horietarako (GRAL, MAL eta practicum) ibilbide arruntetan ezarritako prozesuei atxikiko zaie.

4. Erakunde Laguntzaileen Sarea

Bilboko Hezkuntza Fakultateak [Gaztenpatia](#) programarekin lotura duten helmugetan eskaintzen ditu plazak, baita proiektu propioetan ere:

Gaztenpatia:

Egungo Gaztenpatia proiektuetan gai eta kokapen geografiko ugari sartzen dira. Plaza horiek Garapenerako Lankidetzaren Bulegoarekin koordinatuta adjudikatzen dira eta, beraz, aldatu egin daitezke ikasturte batetik bestera eta beste fakultate batzuetako eskaeraren arabera.

Proiektua / Izena	Herrialdea / Eskualdea	Ekintza ildo nagusia	Webgunea
Gaztenpatia Guatemala	Guatemala	Hezkuntza, garapen komunitarioa, giza eskubideak, Generoa	INCIDE
Gaztenpatia Colectiva Feminista	El Salvador	Generoa, emakume eta nerabeen ahalduntzea	Colectiva
Gaztenpatia Morazán	El Salvador	Lurraldearen garapen, landa eremuko gazteria	Segundo Montes
Gaztenpatia Ibagué	Kolonbia	Hezkuntza eta Gazteak	Yapawayra

Bilboko Hezkuntza Fakultatearen plaza propioak:

Gaztenpatia programaren bitartez kudeatutako helmugez gain, Bilboko Hezkuntza Fakultateak akordio propioak eta zuzeneko lankidetzak ditu hezkuntzaren eta gizartearen arloko erakundeekin, eta horri esker plaza gehiago eskaini daitezke ikasleentzat. Gaur egun, akordio hauek daude finkatuta eta plaza hauek eskaintzen dira:

Proiektua / Izena	Herrialdea / Eskualdea	Ekintza ildo nagusia	Ezaugarri nagusiak	Onartutako tituluak
Setem Hego Haizea	Kolonbia Medellín. COMBOS proiektua	Herritartasun globalerako hezkuntza eta ekonomia solidarioa	- II. Practicuma, Setem Hego Haizea Euskadi elkartearen - III. Practicuma, Kolonbiako Setem-Combos proiektuetan	2 plaza II. eta III. Practicumean - Gizarte Hezkuntzako gradua
Fe y Alegría Guatemala	Guatemala Santa Lucía de la Reforma, Casa del Saber	Garapen komunitarioa, landa heziketa, generoa	- Gizarte Hezkuntzako Graduko II. Practicuma Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeetan	2 plaza II.-III. Practicumean-Gizarte Hezkuntzako Graduan edo III. Practicumean Haur Hezkuntza edo Lehen

			- III. Practicuma, Guatemalako Fe y Alegría proiektu komunitarioetan	Hezkuntzako Graduan
Sahara Fronte Polisarioa	Mendebaldeko Sahara	Kulturarteko hezkuntza eta lankidetz babesaldi luzeko testuinguruetan	- 3 asteko irakaskuntza praktikak ikastetxe batean, Saharako kanpalekuetan. - beste 4 aste sentsibilizazioko, prestakuntzako eta kontzientziarazioko ekintzak egiteko Bilboko Hezkuntza Fakultatean, bizitako esperientzia unibertsitateko testuingurura ekartzeko -Gizarte Hezkuntzako II. Practicumaren testuinguruan, Saharako kanpalekuetan praktikak egiteko 3 aste + Bilboko Hezkuntza Fakultatean sentsibilizazio-, prestakuntza- eta kontzientziarazio-ekintzak egiteko 4 aste gehiago, bizitako esperientzia unibertsitateko testuingurura eramateko. PIII Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeetan	Bi plaza Lehen Hezkuntzako II. Practicumean . Bi plaza Gizarte Hezkuntzako II. eta III. Practicumean .

Helmugako eta proiektuetako herrialdeetan, bizileku bat eskainiko da arrazoizko prezioan, dirulaguntzan jasotako finantzaketarekin ordaintzeko moduan.

5. Inplikaturako eragileen erantzukizunak

UPV/EHUren Bilboko Hezkuntza Fakultatearenak

Curriculumeko praktika, GRAL edo MAL horiek BHFko lankidetzaren arduradunak koordinatuko ditu, honako hauekin elkarlanean: Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako dekanordearekin, Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak Koordinatzeko dekanordearekin, Praktiken eta Euskararen Arloko dekanordearekin, eta Gizarte Hezkuntzako Gradu Praktikatuko eta Transferentziarako dekanordearekin, eta Nazioartekotasunaren Batzorde barruan dagoen Garapenerako Lankidetzako batzordearekin. Hona hemen eragileen erantzukizun garrantzitsuenak:

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Garapenerako Lankidetzak Batzordea

- I. Elankidetzak plana Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako dekanordearekin eta Lankidetzako arduradunarekin batera diseinatu, garatu eta ezartzea, akordio eta gaitasunak identifikatzen eta prozesuak txertatzen lagunduta.
- II. Programan parte hartzen duten ikasleen tutore gisa jardutea, bai Practicum (II eta III) modalitatean, bai GRAL/MAL modalitatean, egonaldien aurretik eta ondoren jarraipena egiteko taldeak sortuta eta lankidetzak testuinguru bakoitzera egokitutako laguntza bermatuta.
- III. Ikasleak hautatzeko prozesuan aktiboki parte hartzea, hautagaiak ezarritako irizpideen arabera baloratuta eta Batzordearen barruan erabaki kolektiboak hartzen lagunduta.
- IV. Egonaldien jarraipenean eta ebaluazioan laguntzea, eta harrerako erakundeekin harremanetan egotea.
- V. Practicumaren/GRALaren/MALaren aldia kalifikatzea, ikasleek egindako jarduerak (prestakuntza proiektuan ageri direnak) kontuan hartuta, baita proiektuko bazkideko instruktore bakoitzak egindako ebaluazioa ere.
- VI. Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko sistema diseinatzea eta koordinatzea, informazioa biltzea egonaldien garapenari buruz eta ikasle nahiz harrera erakundeen gogobetetzeari buruz, eta amaierako txostenetatik eta *feed back* bileretatik ateratako hobetzeko proposamenak jasotzea.

Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako Dekanordetza

- I. Programan inplikaturako dekanordeekin koordinatzea, zehazki, Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako dekanordearekin, Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak Koordinatzeko dekanordearekin, Praktiken eta Euskararen Arloko dekanordearekin eta Gizarte Hezkuntzako Graduak Praktiketako eta Transferentziarako dekanordearekin, behar bezala ezartzen, egokitzen eta ebaluatzen dela ziurtatzeko.
- II. Ikasleak hautatzeko prozesuan parte hartzea, Lankidetzak Batzordea koordinatuta.
- III. Ikasleei nazioarteko mugikortasunarekin lotutako kudeaketa administratiboan laguntzea, bereziki, IKASKOOP programako dirulaguntzak izapidetzen.

Mugikortasuneko eta Garapenerako Lankidetzako Dekanordetza, Lankidetzako arduradunarekin elkarlanean

- I. Nazioarteko zein tokiko erakunde laguntzaileekin akordioak sinatu eta berriro daitezen bultzatzea, gero eta plaza gehiago lortzeko, eta gizartearen eta hezkuntzaren arloko lankidetzarako sare egonkor bat finkatzeko.
- II. Erakunde laguntzaileentzat erreferente izatea, komunikazio garrantzitsuenak bideratzea eta lurraldeko proiektuen jarraipena koordinatzea.

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Garapenerako Lankidetzak Batzordearen koordinatzailea

- I. Plana Fakultateko ikasle eta irakasleen artean gizarteratzea eta ezagutaraztea, programa ezagutzera emateko hitzaldi informatiboak, aurkezpenak irakasgaietan, jardunaldi espezifikoak edo sentsibilizazioko gune instituzionalak antolatuta.
- II. Parte hartzen duten ikasleak hautatzeko prozesua koordinatzea.
- III. Garapenerako Lankidetzak Batzordearen lana dinamizatzea eta bideratzea, bileren deialdiak egitea eta erantzukizunak kideen artean banatzea.

Erakunde laguntzaileak

- I. Ikasleari harrera egitea eta egin beharreko jarduera prestakuntza proiektuan ezarritakoaren arabera antolatzea, praktikaldiko instruktorea argi eta garbi identifikatuta helmuga edo une bakoitzean.
- II. Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, praktikaldian orientabidea ematea eta jarraipena egitea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harreman izanik.
- III. Ikasleari erakundearen antolaketaren eta funtzionamenduaren berri ematea, baita intereseko araudiaren berri ere, batez ere, segurtasunaren eta lan arriskuen arloei dagokienez.
- IV. Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea prestakuntza proiektuan ezarritako jarduerak egiteko, eta proiektuaren garapenean sor daitezkeen gorabeherak jakinaraztea eta konpontzea.
- V. Zehaztutako ebaluazio prozesuan parte hartzea.
- VI. Ikasleari praktikak/GRALa/MALa egin ahal izateko behar izango duen prestakuntza osagarria ematea.
- VII. Ikasleari praktikak/GRALa/MALa egin ahal izateko ezinbesteko bitarteko materialak ematea.
- VIII. Ikasleak berrikuntza, hobekuntza eta ekintzailtza proposamenak egin ditzan erraztea eta bultzatzea.
- IX. UPV/EHUko tutoreari erakundearekiko hartu-emanak erraztea, dagozkion eginkizunak ondo bete ditzan.
- X. Isilpean gordetzea instruktore lanetan ikaslearen inguruan eskura dezakeen edozein informazio.
- XI. Erakundearen ari den bitartean ikasleari beharrezkoa duen laguntza ematea, eginkizun dituen jardueretan suerta daitezkeen lan izaerako arazoak konpontzekiari begira.

Programan parte hartzen duten ikasleak

- I. IKASKOOP deialdian ezarritako baldintzak betetzea. Proiektuari dagokion helmugara bidaiatzeko izapide guztiak (laguntza ekonomikoa, hegaldia, bisa, pasaportea eta aseguruak kontratatzea) bere kabuz kudeatu beharko ditu.
- II. Practicumaren, GRALaren eta MALaren ondoriozko zeregin eta betebeharrak akademikoetan laguntzea eta parte hartzea.
- III. Gaztenpatia online ikastaroa egitea.
- IV. Ikasitakoaren transferentzia egitea, bai helmugatik jardunaldietan parte hartzeko zuzeneko konexioak eginda, bai bideoak grabatuta eta itzultzean aurrez aurreko jardunaldietan parte hartuta.

6. Ikasleek parte hartzeko prozedura

Parte-hartzaileak hautatzea

Graduko ikasleen modalitate guztietarako eskaerak formulario bat beteta egin behar dira **MARTXOKO lehen astean**, hurrengo ikasturteari begira.

Eskaerarekin batera bete behar dira:

1. Postulazioko formularioa (A-B-C modalitatea aukeratu behar da, baita praktikak eskainitako zein lekutan egin nahi diren ere, ikasleak lehentasunaren arabera ordenatuta)
2. Baldintzak onartzeko konpromisoaren dokumentua¹
3. Ikaslearen curriculum vitae
4. Motibazio gutuna

¹ Ikus 1. eranskina

2., 3. eta 4. fitxategiak pdf formatuan eranstean zaizkio formularioari.

Parte hartuko duten ikasleak hautatzeko, hainbat irizpide hartuko dira kontuan, hala nola akademikoak, prestakuntza eta motibazioa. Irizpide horietan, errendimendu akademikoa baloratzeaz gain, konpromiso soziala, ikaslearen proiektu pertsonalaren koherentzia prestakuntzari dagokionez, eta nazioarteko lankidetzaren testuinguruetan parte hartzeko alde aurretik duen prestakuntza ere izaten dira aintzat.

Hona hemen Fakultateko epaimahaiak hautagai bakoitzari oniritzia emateko kontuan hartuko dituen irizpideak:

1. Eskatzailearen espediente akademikoa (% 20).
2. Eskatzailearen curriculum (% 30).
3. Motibazio gutuna (% 20).
4. Elkarriketa pertsonala (% 30).

Plazak adjudikatzea

Tutorea esleitzea: lankidetzaren proiektuetako ikasleen tutoreak Elankidetzaren Planaren batzordeko kide izango dira.

Onartutako ikasle batek ezin badu programan parte hartu, edozein arrazoi dela medio, BHFko zuzendaritzak beste tokiko erakunde bat esleitu dio praktikum egiteko.

1. eranskina: Baldintzak onartzeko konpromisoa

MUGIKORTASUNeko IKASLEEK BALDINTZAK ONARTZEKO KONPROMISOA

Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU)

Ikaslearen izena:

.....

NAN:

.....

Nik, behean sinatzen dudan honek, helmugako erakunde atzerriarrean esleitu didaten plaza onartzen dut, betiere honako baldintza hauen arabera:

BALDINTZA OROKORRAK

- Helmugako unibertsitateko egonaldia hasi baino lehen eta bitartean, UPV/EHUren, Hezkuntza Fakultatearen eta atzerriko unibertsitatearen komunikazioak **UPV/EHUren helbide elektronikoa**ren bitartez egingo dira eta, beraz, @ikasle.ehu.eus helbidea aktibo izateko eta bertan maiz sartzeko konpromisoa hartzen du ikasleak; bestela, bere gain hartzen ditu hori ez egitearen ondorioak.
- Ikasleak erakunde batean plaza bat onartzen duenean, erakunde horren arau guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Ikasle batek atzerriko erakunde batera joateari uko egiten badio, posta elektronikoz jakinarazi beharko die Fakultateko Mugikortasun koordinatzaileari (magisterio-bi.internacional@ehu.eus) eta Lankidetza koordinatzaileari (cooperacion.feb@ehu.eus)
- Egonaldia hasi aurretik, ikasleak Garapenari buruzko Unibertsitate Espezializioko ikastaroa egin beharko du.
- Lankidetza programaren esparruan beka eman ahal izango da Euskal Fondoak behin betiko onespena eman ostean.

Data eta ikaslearen sinadura (elektronikoa):